

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 363/2025 Foru Agindua, ekainaren 17koa. Baimena ematea zorrak ordaintzeko helbideratuz dirubilletan laguntzen ez duten Europar Batasuneko gordailu erakundeetan irekitako kontuetan, Eurotako Ordainketen Eremu Bakarraren (SEPA) barruan, bai eta ordaintzeko betebeharra duen pertsonaren titulartasunekoak ez diren gordailu erakunde laguntzaileetan irekitako kontuetan ere, eta zeinaren bidez ezartzen baitira ordainketa horiek egiteko prozedura eta baldintzak**

Arabako Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorrak 89. artikuluan ezartzen duenez, Foru Diruzaintzaren kobrantzak eta ordainketak eskudirutan egin ahal izango dira, txeke, banku transferentzia edo baimendutako beste edozein bitartekoren bidez, bankukoa izan ala ez.

Arabako Lurralde Historikoaren Dirubilketa Erregelamenduak, maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 24. artikulua 3. apartatuan ezartzen du subjektu pasiboak gordailu erakundeetan helbideratu ahal izango duela zorren ordainketa, kasu bakoitzean zehazten diren baldintzetan.

Martxoaren 5eko 302/1997 Foru Aginduak arautzen du zergadunek zerga zorrak dirubilletako gordailu erakunde laguntzaileetan irekitako kontuetan helbideratzea.

Azken urteotan, banku helbideratzea zerga zorrak ordaintzeko bitarteko gisa erabiltzeak etengabe egin du gora, eta betebehardunek gehien erabiltzen dutenetako bat bihurtu da. Helbideratze prozedurak izan duen funtzionamendu ona ikusita, komenigarritzat jotzen da ordainbide hori erabiltzeko aukera ematea, baita helbideratzearen zordunketa egiteko ordaintzera behartuta dagoenak izendatutako kontua dirubilletan laguntzaile ez den erakunde batean irekita dagoenean ere, betiere erakunde hori Eurotako Ordainketen Eremu Bakarraren barruan badago (SEPA eremua). SEPA eremua honako hogeita hamasei herrialde hauek osatzen dute: Europar Batasuneko hogeita zazpi estatu kideak, Islandia, Liechtenstein, Norvegia, Andorra, Monako, San Marino, Suitza, Erresuma Batua eta Vatikanoko Hiria.

Azaldutakoan oinarrituta, beharrezkoa da zorrak Europar Batasunean kokatutako kontuetan helbideratzearen bidez ordaintzeko prozedura eta baldintzak jartzea, SEPA eremuaren barruan.

Foru agindu hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioekin. Premia- eta eraginkortasun-printzipioei dagokienez, ezinbesteko araua da, alde batetik, baimentzeko zorrak ordaintzea helbideratuz dirubilletan laguntzen ez duten Europar Batasuneko gordailu erakundeetan irekitako kontuetan, Eurotako Ordainketen Eremu Bakarraren (SEPA) barruan, bai eta ordaintzeko betebeharra duen pertsonaren titulartasunekoak ez diren gordailu erakunde laguntzaileetan irekitako kontuetan ere, eta, bestetik, ezartzeko ordainketa horiek egiteko prozedura eta baldintzak.

Proporzionaltasun printzipioarekin bat etorritik, adierazitako helburua lortzeko ezinbestekoa den arauketa biltzen du, ez baitago eskubideak gutxiago murrizten dituen aukera arautzailerik. Segurtasun juridikoaren eta eraginkortasunaren printzipioen arabera, koherentea da ordenamendu juridikoarekin, eta baliabide publikoen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzen du. Gardentasunaren printzipioa ere betetzen du, argi eta garbi identifikatzen baitu bere asmoa, eta, araua egiteko prozeduran zehar, hartzaile izan daitezkeen parte hartze aktiboa ahalbidetu da, entzunaldiko izapidearen eta jendaurreko informazioaren bidez.

Ikusirik gaiari buruz Zerga Araudiaren Zerbitzuak emandako txostena eta Aholku Batzordeak emandakoa, zeinean lege antolamenduari egokituztat jotzen baita foru agindua.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

**1. artikulua.** Baimena ematea zorrak Europar Batasuneko ordainketa kontuetan helbideratuz ordaintzeko, SEPA eremuaren barruan eta ordaintzeko betebeharra duen pertsonaren titulartasunekoak ez diren gordailu erakunde laguntzaileetan irekitako kontuetan

Maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Arabako Lurralde Historikoaren Dirubilletari buruzko Erregelamendu Orokorraren 25.1.c) artikuluan eta 25.2 artikuluan jasotako gaikuntzaren arabera, baimena ematen da zergapekoen zorrak ordaintzeko Europar Batasunean, eta SEPA eremuaren barruan, kokatutako ordainketa kontuetan helbideratuz, betiere Europar Batasuneko estatu kide batean kokatutako ordainketa zerbitzuen hornitzaileekin irekita badaude eta horiek ez badira dirubilletan laguntzen duten gordailu erakundeak, bai eta ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren titulartasunekoak ez diren gordailu erakunde laguntzaileetan irekitako kontuetan ere.

#### **2. artikulua. Aplikazio eremua**

Foru agindu honetan ezarritakoa Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak bildutako zorrei dagozkien ordainketei aplikatuko zaie.

Ondorio horietarako, ordainketa egitera behartuta dauden pertsonak ordainketa helbideratzea aukeratu ahal izango dute, kolaboratzaile diren entitateez gain:

a) Europar Batasunean kokatutako ordainketa kontu batean, SEPA eremuaren barruan, dirubilletan gordailu entitate laguntzaile ez den estatu kide batean kokatutako ordainketa zerbitzuen hornitzaile batekin irekia.

b) Dirubilletan laguntzen duen eta bere titulartasunekoak ez den gordailu entitate batean irekitako kontu batean.

**3. artikulua.** Dirubilletako gordailu erakunde laguntzaileak atxikitzea Europar Batasunean, SEPA eremuaren barruan, kokatuta dauden eta dirubilletan laguntzaileak ez diren gordailu erakundeetan irekitako kontuetan helbideratzeko prozedurari

Arabako Foru Aldundiak zordunketa helbideratuak kobratzen hasi ahal izango ditu dirubilletan laguntzen ez duten Europar Batasuneko gordailu entitateen kontuetan, SEPA eremuaren barruan, Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak Finantza Kudeaketa Zerbitzuaren bidez horretarako zehaztutako gordailu entitate laguntzaile baten edo batzuen bidez, salbu eta entitate horiek berariaz jakinarazten badute prozedura horretatik kanpo geratu nahi direla.

Diru sarrera helbideratzen denean, gordailu erakunde laguntzaileek Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko kontu korrante orokorretan abonatu dute.

Arabako Foru Aldundiak artikulua honetan arautzen den prozeduran beharrezkoak diren banku kudeaketak egiteagatik erakunde laguntzaile parte hartzaileei ordaindu behar dizkien komisio eta banku gastu guztiak ordaintzera behartuta dagoenari egotziko zaizkio.

**4. artikulua.** Bankuan helbideratuta ordaintzeko prozedura eta betekizunak, Europar Batasunean, SEPA eremuaren barruan, irekitako kontuetan eta dirubilletan laguntzen duten gordailu entitateetan irekitako kontuetan, baldin eta zergadunaren titulartasunekoak ez badira.

Bat. Ordainketa egiteko, ordaintzeko betebeharra duen pertsonak horretarako ezartzen diren inprimakiak bete beharko ditu, ordaindu nahi diren zorrei lotutako datuak identifikatzeko, eta aukeratu beharko du ordainketa dirubilletan laguntzen ez duten gordailu erakundeetan irekitako kontuetan helbideratzea edo, bestela, dirubilletan laguntzen duten gordailu erakundeetan irekitako kontuetan helbideratzea, betiere ordaintzeko betebeharra duen pertsonaren titulartasunekoak ez badira.

Bi. Dirubilketan laguntzen ez duten gordailu erakundeetan irekitako kontuetan helbideratzearen bidezko ordainketa honako betekizun hauek betez gero egin ahal izango da:

a) Ordaintzeko betebeharra duen pertsona helbideratzea agintzen den kontuaren titularra izatea. Kontuaren titulartasuna justifikatu egin beharko da, Arabako Foru Aldundian justifikazio hori lehenago jaso ez bada.

b) Kontuak Europar Batasunean kokatuta egon behar du, SEPA eremuaren barruan, eta irekita estatu kide batean kokatutako ordainketa zerbitzuen hornitzaile batekin.

c) Administrazioari helbideratzeko aginduaren berri ematea.

d) Helbideratze kontuko SWIFT-IBAN kodea adieraztea.

Hiru. Ordaintzeko betebeharra duen pertsonaren titulartasunekoak ez diren dirubilketan laguntzen ez duten gordailu erakundeetan irekitako kontuetan helbideratzearen bidezko ordainketa honako betekizun hauek betez gero egin ahal izango da:

a) Dirubilketan laguntzen duen gordailu erakunde batean egotea irekita kontua.

b) Kontuaren titularrak helbideratzea baimentzea.

c) Administrazioari helbideratzeko aginduaren berri ematea.

d) Helbideratze kontuko SWIFT-IBAN kodea adieraztea.

**5. artikulua.** Helbideratzea kontuan zorduntzeko datak eta ordainagiria.

Bat. Administrazioak helbideratzeen zordunketa egin ahal izango du ordaintzera behartuta dagoen pertsonak emandako banku kontuan, indarrean dagoen araudian ezarritako epeetan.

Bi. Hautatu bada ordaintzea dirubilketan laguntzen ez duten gordailu erakundeetan irekitako kontuetan helbideratzearen bidez eta, kontuko zordunketa egin ondoren ordaintzera behartuta dagoen pertsonak itzulketa eskubidea baliatzen badu, ordainketa zerbitzuen eta finantza arloko presako beste neurri batzuen azaroaren 23ko 19/2018 Errege Lege Dekretuaren 48. artikulua 2. apartatuan jaso, araudi beraren 49. artikulua 1. apartatuan ezarritako epean, ulertuko da ordainketa ez dela egin, eta dagozkion errekarquak, berandutze interesak eta zehapenak eskatuko zaizkio.

Dirubilketan laguntzen ez duten gordailu erakundeetan irekitako kontuetan helbideratzearen bidezko ordainketen kasuetan, diru sarrera behar bezala identifikatu ondoren, eta betiere aurreko paragrafoan aipatzen den itzulketa egiten ez bada, ordaintzeko betebeharra duen pertsonak dagokion ordainagiria eskuratu ahal izango du Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa.

**AZKEN XEDAPEN BAKARRA.** Indarrean jartzea

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 17a

*Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*  
**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**

*Finantza eta Aurrekontu zuzendaria*  
**IÑAKI ARRIZABALAGA ORMAECHEA**